


BALEIKE

200 pta.

43. zenb.



- **N-634** errepidea, konponbide baten bila
- **Imanol Azkue Julene Azpeitia** lehiaketaren irabazlearekin elkarrizketa
- **Xakea** modan jarri da herrian

- **Presoen eskubideen aldeko erantzun zabala**

ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

1+1 = hamaika

KORRIKA

*zu eta ni
euskaraz*

Martxoaren
19tik 28ra
Iruñea-Donostia

korrika



Foronda kultur etxea
tel.: 943 86 10 56
faxa: 943 86 17 42
e-posta: baleike@yahoo.com

Argitaratzailea

ZUMAIAKO
GAZTE BATZORDEA

Administrazio batzordea

Xabier Azkue
Uxua Ostolaza
Antxoka Agirre
Iñaki Zubimendi

Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre
Ane Osa
Esther Aizpurua
Esther Martinez
Joseba Ossa

Igor Uranga
Josu Waliño
Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre
Igor Uranga
Gorka Zabaleta
Juan Luis Romatet

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub
taldea, Ingurugiro tailer
eskola, Miriam Romatet,
Jon Manzisidor,
Fototeka,
Andoni Ormazuri e.a.

Komikia

Igor Zendoia

Argazkiak

Jonathan Bernal
Baleike

Diseinua

Juan Luis Blanco

Maketazioa

Aitor Bayo

Hizkuntz zuzenketa

Itziar Uranga,
Xabier Azkue

Banaketa

Andoni Ormazuri
Ilargi eta konpainia

Publizitatea

Uxua Ostolaza
(943 861056)

Inprimategia

Gertu Inprimategia
(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzuki-
zunik.

Bilboko metroa eta Zumaiko metroa

Hiria.Topiko bat da, baina baita egia ere, hirietako jendeak kalean duen harremana askoz hotzagoa da herrietakoa baino. Presaka ibiltzen dira, ezertan eta inorengan erreparatu gabe, kalea bi punturen arteko distantzia motxena bakarrik izango balitz bezala.

Eta hiriaren errailetan, metroan, oraindik ere nabariagoa da jendearen impermeabilitate hori. Hona hemen adibide batzuk:

- A) Metroan zoazela jendeak botatzen dituen begiratuak ez dira beste inon topatzen. Begiratu luzeak dira, lotsagabeak, haur batena bezalakoak. Espelikazioa: Badakite seguraski ez zaituztela berriro ikusiko, eta bost inporta zaie pentsa dezakezuna.
- B) Begiratu bai, baina inork ez dizu hitzerdirik ere egingo. Agian, hurrengo geltokian jaitsi zaitezkeenez, elkarrizketa hasi eta berehala utzi baino nahiago dute hasi ere ez egitea; edo agian hotzagoak dira, besterik gabe.
- D) Joan den astean Bilboko metroan egindako deskubrimetua izan zen topiko honen egiazkotasunaz erabat konbentzitu ninduen.

Nere parean eserita irakurtzen zihoazen bi neskaren liburuen forroei begira pasatu zitzaidan Boluetatik Moyuarako bidea. Batena berdea zen, goitik behera dibujo floral txuri batzuekin; baserriko gela batean daukagun parateko paperaren antz-antzekoa. Bestearena txuria tanto gorriekin. Pixkat harrituta gelditu nintzen horrelako forro zatarrak ikusita, baina gauza ez zen hortik pasatuko bueltakoan tipo bat nere parean paper arrosa zatar batekin forraturiko liburuxka bat irakurtzen jarri ez balitz. Bilbon pisu batean bizi den lagun batekin nindoan, eta hura metroan ni baino gehiago ibilitakoa denez galdetu egin nion: zergatik daramate denek liburua forratuta? "Jendeari konbentsazioirik ez emateko. Bestela titulua irakurri eta igual hasten zaizkizu liburua komentatzen".

Herria. Zumaian ere ari gara XXI. menderako geure azpiegiturak sortzen. Obretan ari dira Erribera kaleko 'Metro'an, eta San Pedrotarako irekitzeko asmotan dabilta. Agian ez da Bilboko bezain metro lujosoa izango, baina goxoagoa seguru. Pintxo eder bat ('gilda' bat adibidez) eta trago batekin eseri ahalko gara bertan, eta elkarri begira eta mutu beharrean lagunekin hizketan joan gaitzeko hurrengo geltokirarte. Gazte batzuek ireki behar dute gainera, eta seguru giro bikaina duela.

Esaten nuena hirietako jendeak kalean duen harremana askoz hotzagoa da herrietakoa baino.

Ah, eta ahaztu baino lehen, Bilboko metroan ez ezazue ordaindu. Aurreko astean egin nuen buelta horretan katxarroaren gainetik salto eginda pasa ginen eta inork ez zigun ezer esan. Ez zegoen seguratarik.



Antxoka Agirre



Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikiroldegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 50 25	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48
Alkoholikoen senideak	943 47 54 03	Sexu-informazioa	943 32 04 44

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiko Udala



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

Lizarrako akordioa dela eta

Gure Euskal Herriak, hainbat urtetan bizi duen gatazka politiko gordinari, konponbide duin bat aurkitzeko parada iritsia da. Eta gatazkaren konponbiderako metodologia edo-eta klabeak zehazten dituen proposamen serio eta zabal bat mahai gainean dugu irailaz geroztik: Lizarrako Akordioa. Bakegintzaren bidean, oinarri sendo eta demokratikoetan zehazturiko hitzarmena hain zuzen ere.

Baina badira Lizarrako Akordioaren aurka, gogor eta gainera ezaugarri mediatiko izugarri batez lagundurik dabiltzanak (frontea dela, abertzale ez direnen aurka doala, baztertu egiten dituela...) Irakurri al dute, ordea, Akordioa? Aztertu al dute bere mamia?

Bi aukera ditugu:

1. Ez dute irakurri (nahi). Garbi geratuko litzateke, konponbiderako boron-daterik eza.
2. Irakurri dute eta beldurtu egin dira. Amaitu zaie euren fartsa. Zergatik?

Ba, Akordioak Herri zahar honetan bizi garen guztion esku uzten duelako azken erabakia. Hau da, guk erabakiko dugula zer eta nola izan eta jokatu nahi dugun. Eta hori baino proposamen demokratikorik? Ez al ziren ba eurak "nosotros los demócratas" esaten ibili direnak?

Beraz, argi dago hemen eta gaur egun, hainbat alderdi politiko, sindikatu eta herri mugimenduk hitzarturiko proposamen bakar hau dugula, gatazkaren konponbide demokratikorako. Eta denon esku dago honi bultzada eman eta aurrera ateratzea.

Herri honek merezi duelako: Konponbide Demokratikoa!!



ZIGOR ETXABE

Joanito ohorezko bazkide

Hauxe da Jon Sarasuak, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen izenean, martxoaren 6an Hernanin Joanito Dorronsorori abestutako bertsoa:

Doinua: Joanito

*Joanito dugu iturri eta
badugu nondikan edan
bertso doinuak sailkatu ditu
hauek hemen ta haiek han
bertsoa maite duenak soilik
sailkatu ditzakeen eran
pentagramako notek
bakarrik
ez garamatzate hegan
gure inguruko pertsona
batzuk
musika dute beregan*



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309

HARATEGIA
URDAITEGIA



Itzurun zuhaitzbidea, 1
Tel. 862430



ALBAITARITZA
KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Autopistaren bidesaria ez kentzea erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiak

EAJ, EA eta PPren ustez Meagako bidea kostakoaren ordezkoduna da

Otsailaren 18an, Gipuzkoako Foru Aldundian Zumaia eta Zarautz artean Bilbao-Behobia autopistako bidesaria kentzea eskatu zuten HBk eta Iuk

N-634a konpondu bitartean. Proposamenak aurrera egingo zuela pentsatzen zuten arren, EAJ, EA eta PPren aurkako botoekin bertan behera gelditu zen.

Autopistako bidesariaren auzia sortu zenetik, joan den hilabetean lehen aldiz bi alderdiek eskakizun ofiziala egin zuten Gipuzkoako Foru Aldundian. HBk eta Iuk Zumaia eta Zarautz arteko bidesaria kentzeko eskatu zuten, kostako errepidea berriro martxan jarri arte. Bi alderdiek proposamenak aurrera egingo zuela pentsatzen zuten, abenduaren 17an PP alde agertu zelako. PSEk abstentzioa aukeratu zuenez,



PPren jarrera aldaketak zapuztu zuten HB eta Iuren eskakizuna.

Antton Jaime (EA) errepideetako diputatuaren aburuz, "Meagako errepidea kostakoaren ordezkoduna da". Jaimek dio bi errepideen artean kilometro bateko aldea baino ez dagoela, eta ibilbidea osatzeko antzerako denbora behar dela. Bestalde, diputatuak dio erabaki garestia litzatekeela: "Europistasi ordaindu egin beharko genioke, eta gainera ezinezkoa da jakitea zeintzuk diren benetan erabiltzaile kaltetuak eta

zeintzuk ez", azaldu zuen Jaimek. Gainera, kostako errepideko konponketa lanak bide onetik omen doaz, eta apirilean alde bat irekita egongo omen da.

HB eta IU ez daude ados diputatuak dioenarekin. Bi alderdi hauen ustez, Meaga ez da, inola ere, kostako errepidearen ordezkoduna da: "Hori esatea gezurra esatea da, edo errealitatea ez ezagutzea. Meaga ez dago behar bezala prestatuta".

◀ GORKA ZABALETA

Apirilaren 1ean karril bat zabalduko da

Antton Jaime diputatua kostako errepidean egiten ari diren konponketa lanak ikusten izan zen joan den otsailaren 26an. Jaime oso pozik agertu zen lanen martxarekin, eta apirilaren 1erako karril bat zabalduko dutela iragarri zuen. Lanek hilabeteko aurrerapena omen dute, eta maiatzeko lehen egunetarako guztiz konponduta egongo dela esan zuen. Mendiaren maldari eutsiko dion eskoilera amaituta dago jadanik. 100 metroko luzera du eta seiko altuera. Une honetan Construcciones Moyuako 25 langile errepideari eutsiko dion horma ari dira egiten. Antton Jaimek esan zuenez, aurrekontua bere hortan geldituko da -180 milioi pezeta-, ez baita aparteko zailtasunik agertu. Lanak bukatzearekin batera, azterketa sakon bat egingo da Zumaia eta Zarautz bitarteko errepidean eta Meagan.

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 862387

Alberdi
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 861156

Torreberriko goiko solairuak bota ditu Udalak

Luciano Paguegi:
"Arrisku handia zegoen eta ez dugu beste aukerarik izan"

Udalaren erabakia gauzatu egin da, eta Torreberri goiko solairurik gabe gelditu da. Garrantzi historiko handia du eraikuntza honek, baina aspalditik guztiz utzita egon da, eta pixkanaka bere hormak ahulduz joan dira, ruina bihurtu arte. Luciano Paguegi Udaleko arkitektoak adierazi digunez, "eraikuntza hau berreskuratzea izan zen gure lehen asmoa, baina hormak oso egoera txarrean zeudela ikusi genuen, eta orduan erabaki genuen zati arrisku-suenak botatzea". Lucianok argi utzi nahi izan du ez dela Torreberri osoa botako: "Informazio okerra zabaldu da. Ez da Torreberri osoa botako, goiko solairuetako hormak baizik, erortzeko arrisku handia zegoen eta".

Eraikuntza honek balio historiko handia duela, dudarik ez du Lucianok. Balio artistikoa neurtzeko Gipuzkoako Aldundiko teknikoekin jarri ziren harremanetan. Hau izan zen erantzuna: "Dorre honek aldaketa ugari izan ditu denboran zehar. Balio historikoa ezin



zaio ukatu, baina ez du aparteko balio artistikorik".

Gauzak horrela, Udalak ruina kasuetako araua jarraitu du. Lucianok azaldu dizkigu eman beharreko pausoak: "Lehenik eta behin, harri baliotsuak zenbatu eta identifikatu ditugu. Gero argazki erreportaia zehatza egin da, harri bakoitza non zegoen jakiteko. Eta gero horma arriskutsuak bota ditugu.

Identifikatutako harriak lekuan bertan gordeko dira".

Lucianok esan digunez, egunen batean harri horiek erabiliko dira Torreberri berreraikitzen bada: "Egunen batean proiekturen bat badago, eta hori gauzatzeko dirua, harri horiek erabiliko ditugu".

◀ GORKA ZABALETA



Itzurun, 1 Tel. 143224



Santixo auzoa, 22 Tel./Faxa: 143143



Bonifazio Etxegarai, 1 Tel./Faxa: 860169

Antonio Etxabe



Gizonezkoen erropak

Zumbillo, 4 Tel. 861407

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

Torreberri: gure ondare historikoaren "paraderoa"

Torreberri izeneko etxea Arriola familiarena izan zen XVI eta XVII. mendeetan. Izenari kasu egiten badiogu, dorretxe zaharren bat egongo zen gaur egungoa eraiki baino lehen.

Manuel Arriola etxeko buruak Pascual de Manzidor harginarekin eta Pascual de Akenza arotzarekin dorretxea berreraikitzeke kontratua sinatu zuen 1613an. Etxea hobetzeko arrazoia zein izan zen ez badakigu ere, ez da arraroa horrelako lanak egitea famili haundien etxe zaharretan. Gainera, Manuel Arriolak armada kargu inportanteak izan zituen Aragoiko Erresuman, 1623an Zaragozan hil baino lehen.

Berreraikuntzak XVII. mendeko dorretxe tipikoa utzi digu. Harlanduzko zatiak dituen fatxada eta harlangabeko hormak. Solairu nagusian armarrria bi balkoien artean. Torreberri ezinbesteko urratsa iruditzen zait horrelako etxeek jasan zituzten aldaketak ulertzeko XVI. mendetik XVII. mendera. Nik Ubillos eta Olaza-



balen artean kokatuko nuke, gutxi gorabehera Erdi Aroko dorre itxurako etxeak nola moldatu zituzten XVI. mendeak emandako berrikuntzekin.

Beraz, garrantzi historiko eta artistiko haundiko monumentua da eta gaur egun egoera penagarrian dago utzikeria dela eta. Zumaiako Udalak Aranzadiri eskatutako txostenean azaltzen ziren babes aholku gutxi bete ditu. Erabakia hartzea ere ez zen erraza, baina udalen eta diputazioen esku dago gure ondare kulturala babestea.

Hemen arazo baten aurreko hausnarketa behar dugula iruditzen zait. Gizarte batek etorkizuna erabakitzeaz gain, iraganeko zer gorde behar duen eta zer ez erabaki behar du.

Gure kasuan diru arazoekin topo egiten dugu beti. Ez dago behar adina diru gauza guztiak gordeztzeko. Iraganak utzitako ondarearen artean zerbait aukeratu behar dela dirudi, hala ere, ez dut uste beti horrela izan behar duenik. Diru asko dago azpiegitura lan haundiak egiteko (horrekin irabazten dute enpresa haundiek), baina ez dago dirua kultur gaietarako. Kirol portua izango dugu baina Torreberri galduko dugu. Ezertarako balio ez duen Paoleko legez kanpoko itsas muturraren dirutza laurdena baino gutxiagorekin Torreberrin "marabilak" egin zitezkeen.

XVII. mendeko zenbat dorretxe daude Zumaian? Bi, Olazabal eta Torreberri. Bat galtzeko prest al gaude?

◀ ISMAEL MANTEROLA ISPIZUA



AUTO-ESKOLA





STOP

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua.
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea.

ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 861018

Jadarre, 18-2. D
Tel. 861449



BARRENETXEA

Garraioak

GARRAIO ASTUNAK



Azkue Autoak

Tel. 861433
Faxa: 861067

Estazioko kalea, 19

balezulo

importaturiko eropa eta artisautza



Basadi, 3



BASUSTA

ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25 Tel. 862073



Hilaren 6an Hernanin egindako bileraren baitan, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak Joanitori ondo merezitako omenaldia eskaini eta Ohorezko Bazkide izendatu zuen, batez ere bertso doinuak sailkatzen egindako lan itzelagatik. Imanol Lazkano EHBEko Lehendakariak aitortu zuenez "Bertsolariok alfer fama pixka bat badugu, arrazoizkoa gainera, eta horregatik ezinbestekoa zaigu Joanito bezala isilean lan egiten duten pertsonak inguruan izatea, zeozer egin nahi baldin badugu behintzat". Era berean Joanitok Zumaian egindako lana ere goraiatu zuen Lazkanok, ia herri osoa bertsozaletu duela gogoratu.

Oso detaile polita eduki zuen Bertsozale Elkarteak; izan ere,

Joanito Dorronsoro, Ohorezko Bazkide

beren esker ona adierazteko opari ezin hobea egin baitzioten Joanitori, Bertso-doinutegiaren egilearentzako ezin egokiagoa: Imanol Urbietak ekitaldi honetarako propio egindako doinu berri bat, "Joanito" izena eramango duena. Ondoren Jon Maiak bertso eder bat abestu zuen, bertsoaren historian Joanitoren izena hizki handietan idatziko dela azpimarratuz. Joanitok berak ere hitz egin zuen, hunkituta, batetik Elkartearen izendapena eta oparia eskertuz, eta bestetik EHBE orain artean bezain txukun lanean jarraitzera gonbidatuz.

Geure aldetik Joanitori berari luzatzen diogu lanean jarraitzeko gonbitea, eta pixkanaka ahaleginduko gara "Joanito" doinuaz jabetu eta hitzetik hortzera erabiltzen.

◀ XABIER AZKUE

Laburrak

Korrika hilaren 28an pasako da
"Bat eta bat hamaika. Zu eta ni euskaraz" lelopean etorriko da aurten Korrika. Iruñeatik abiatuko da hilaren 19an eta 28an iritsiko da Donostiako helmugara. 28an bertan pasako da gure herritik, goizean. Jadanik hainbat ekitaldi burutu dira Zumaian, Korrika kulturalaren barnean: Txanbela taldearen kontzertua, film laburren emanaldia, herriko kirolarien arteko erronka,...

Kurdoak protagonista Zestoan izango den EGI egunean

Martxoaren azken asteburuan EGI eguna ospatuko da Zestoan. Ostiralean hasi eta igandera bitartean hainbat ekitaldi izango badira ere, kurdoek izango dute protagonismoa nabarmentzen da aurtengo egitarauan. Larunbatean, arratsaldeko Getan Kurdoen arazoari buruzko hitzaldia izango da, herri horretako ordezkari bat bertan izango delarik. Ondoren mahainguru politikoa izango da, eta gauean herri afaria eta kontzertua.

8353 zumaiar gara

Zumaiaiko Udalak ezagutzera eman du biztanleen errolda berria. 1999ko urtarrilaren 1ean 8353 zumaiar ginen, iaz baino 20 gehiago. Azken urteotako joera mantentzen da, beraz. 8353 biztanleetatik 4167 gizonezkoak dira eta 4186 emakumezkoak. Bestalde, 1998an 79 haur jaio ziren eta 76 lagun hil ziren. Herrira 162 lagun etorri ziren bizitzera, eta 152 joan ziren beste herri batera.

BASUSTA ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25 Tel. 862073

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

EGOKI

Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

EGUZKI PUB

Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B

ekin
elektrizitatea, s.l.

instalazio elektrikoak
instalazio musikalak
antena - parabolikoak
akumuladoreak
portero automatikoak
telefonía

Televés
Instalador Oficial

MoviStar

MoviLine

Erribera, 18
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel./Faxa 943 - 143097
629 - 450777

CANAL+

CANAL DIGITAL

Leihoaren ...ahotik

Hauts izango gara. Akabera horixe izaten dute pareko Erramunek goizero ahoratzen dituen belar bilduzko zilindroek. Eguna joan eta eguna etorri, urte luzez landutako mugimenduak ongi perfektionatuak ditu. Dena mekanikoa.

Zazpietako kanpai hotsekin batera balkoiko atea ireki, eta barandara hurbiltzen da, pizkailua eta belar sorta esku banatan. Belarrari hatz artean hainbat mugimendu eman ostean, paper zuritan bildu eta ahora! Kea dario sutan den plazerrari. Hala adierazten dute behintzat bi begi esnatu berriek, arnasten duen aire keztatu aldi bakoitzeko.

Gainontzeko gauza guztiak bezala, ordea, laister jaten du suak landare idorra ere. Amaitu da. Eztarri hormen bazterretan pausatu diren zikinak ahoratu, eta kalera ttu egin ostean, kortina artean galdu da Erramun.

Listu kutsatuak berriz, beheranzko bideari darraio, Newtonen legeak dioen lez, masa bider grabitatearen pareko indarraren eraginez, harik eta asfalto hotza topatu duen arte. Txof! Lurreratu orduko oinetako zarpail batek menperatu du. Lastima, gaur ere puntual doa elizara Prantxika.

Beheko bizilaguna dut Prantxika. Emakume zorrotza, bategatik ez bada besteagatik, baina beti gaizkiesaka. Bart ere sekulakoak eta bi entzun behar izan dizkiot, nire zurrunken hotsa zela eta ez zela. Sikira egunen batean segundo batzuk lehenxeago kaleratuko balitz....plax!

-Egun on aitona, bikarioa igaro al da?

-Esnatu haiz eta, Maialen. Ez, ez dun pasa oraindik, baina azaltzear izango dun.

Ibiliera baldarra eraman ohi du bikario zaharrak bizikleta gainean, beti presaka, sotana galdu beharrean elizarantz doalarik. Algara ederrak egiten ditugu Maialenek eta biok bere kontura.

-Aitona, aitona, arrautza ala oiloa, zer da lehenagokoa? Josune andereñoak galdetu zidan atzo, eta ez nuen erantzuten jakin.

-Esaion, nik dakidala behintzat arraultzeak lehenagokoak direla. Eta ez dudala beraietatik txitorik espero, oilarra harrotzen den arte behintzat.

Hara, bitartean aldegin digu bikario zaharrak ere, oiloen atzetik edo. Barreak biharko utzi beharko.

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza, 15
Tel. 862458



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT

Esther osa: 3 urte Panaman

Duela 3 urte Panamako oihanean dagoen METETI herrira joan zen Jaurlaritzaren proiektu batekin: Haurrentzako uniformeak egiteko jostundegi bat eraiki behar zuen herrian, eta horrekin batera herritarrei idazten, irakurtzen, eta batuketak eta kenketak egiten erakutsi behar zien gerora bakarrik molda zitezten. Orain etxean da, eta hiru urte hauek utzitako arrasto bistakoena eskuin aldean zintzilik duen trentza da: hiru urte hauetan moztu ez duen ile adatsarekin egindako trentza.

❑ Zergatik aukeratu zenuen Panama?

Bueno oraingoa ez da niretzat lehen aldia izan. Lehenago ere, 93ko udan, 3 hilabete pasa nituen orain egon naizen leku berean, METETIN. Orduan parrokiko gazteek bultzatutako proiektu batekin joan nintzen, proiektu hura ez zen orduan erabat amaitu, eta gerora berriro bertara joan eta erabat burutzeko aukera eskaini zidatenean, ezin izan nuen ezezkorik eman.

❑ Zer pentsamendu ekarri zenituen lehen bidaia harretatik?

Oso sentrazio fuertea da barruan ekartzen duzuna. Niretzat esate baterako, ia etxetik ateratzen nintzen aurrenekoa aldia zen, eta han aurkitu nuen jendeak ezer ez izan arren guztia ematen zizun eta gainera zuk egindako gutxia bihotzez eskertzen zuen. Orduan konturatzen zara zenbat gauza egin daitezkeen han eta orduan baloratzen duzu benetan hemen daukagun guztia.

❑ Ez zen ba erraza izango 3 urteko proiektuari baiezkoa ematea...

Beno ez nuen nahi ta nahiez 3 urterako joan behar. Baina gauzak han askoz ere motelagoak dira, ez dituzte hemen ditugun tresnak eta banekien urtebetean ez nuela ezer egingo, 2 urte ere ez zirela nahikoa eta 3 urte hartu beharko nituela hasitako lana ondo burutzeko. Erabakia gogorra izan zen, eta ez nuen berehala onartu, baina kontuan hartuta Jaurlaritzaren dirua

guztiona dela eta jendeak erantzunak eskatzen dituela, ba nolabait neure gain hartu nuen Jaurlaritzak eskaintzen zidan diru hori ongi bideratzeko erantzukizuna.

❑ Panamara egiten zenuen bigarren bidaia denbora gehiagorako izateaz gain, erantzukizun haundikoa zen.

Zein zen zure betebeharra?
Proiektuak atal asko zituen. Batetik mikroenpresa bat eraiki behar zen; bestetik, osasun gaien inguruko heziketa eskaini behar zitzaien, eta baita lanbide heziketa. Lan gogorrena, jostundegia, mikroenpresa eraikitze-arena zen. Enpresa honen egiteko nagusia haurrentzako eskolarako uniformeak egitea zen.

Hemendik eramandako arropa eleganteenak eta erre egin nituen

❑ Oihanean bizi diren haurrentzako uniformeak?

Bai uniformerik ez badute ezin dute eskolara joan. Nahitanahiez eraman behar dute baina oso garestiak dira, ze uniformeak erosteko hiriburura jaitsi behar dute, 300 kilometro egin, 12 ordu baino gehiago pasa bidean eta gainera dirutza bat ordaindu. Eta gure planteamendua zen: umeak ez badira eskolara joaten ez dute ikasteko aukerik izango

eta honek ez du sekula aurrera egingo. Beraz jostundegia egitea zen gure helburu nagusia.

❑ Nondik hasi zinen?

Ba haurren amekin. Gizonezkoak oso matxistak dira, eta haiei josten irakasteko ahaleginik ere ez nuen egin, nahikoa lan izan nuen beren emazteei eskolara joateko permisoa lortzen. Ez zuten nahi emaztea etxetik ateratzerik, baina konbentzitu nituen. Beraz, emakumeei bakarrik erakutsi nien. Hasiera-hasieratik hasi behar zen: zenbakiak, kenketak, batuketak, pixkat idazten eta irakurtzen, gerora neurriak hartu eta zenbakiak bereizten jakiteko. Beraiek ikusi zutenean gai zirela gona bat edo alkandora bat ateratzeko, ba gogo gehiagorekin hartu zuten eta neuk ere ikusi nuen aurrera egiteko gai izango ginela. Beraz uniformeak geuk egingo genituen, hiriburuan baino merkeago egingo genituen, eta gero gure lurraldean banatu.

❑ Non dago METETI, nolakoa da?

Hiriburutik 300 bat kilometrora dagoen oihaneko herrixka bat da, baina 12 ordu behar dituzu gutxienez hango 300 kilometroak egiteko errepideak ere halamoduzkoak direlako. Neguan, beno, euria egiten duen garaian, han ez baitago negurik, izugarrizko lokatza eta zuloak egiten dira; eta euririk ez dagoen garaian, alegia udan hautsa ikaragarria egoten da.

ERTZ informatika



ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET



Eusebio Gurrutxaga, 6

Tel. 943 14 33 95

expert



ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etxezarreta, 6

Tel. 861078

B Metetin non bizi zinen?

Ni hiru monjekin, bizi nintzen, gure etxea ez zen hemengo etxeak bezalakoa, inondik ere, baina besteak baino hobexegoa bai. Eta hasieran zeure buruarekin burrukan aritzen zara zergatik izan behar dugu guk pribilegio hau eta halakoak pentsatzen dituzu, baina azkenean konturatzen zara hemendik hara joaten garenok haien kondiziotan jarriz gero ez genukeela askorik iraungo. Nik behintzat ez.

B Zenbat biztanle ditu herriak?

Ba asko hasten ari da, eta orain izango ditu 800-900 biztanle. Arraza askotakoak dira: beltzak, kanpesinoak, hauek mestizoak dira, eta gero bertoko indigenak. Metetin gehienak kanpesinoak dira, laborariak.

B Zer hizkuntza hitz egiten dute?

Indioak adibidez, bi etniatakoak daude, eta bakoitzat bere hizkuntza egiten du, eta gero beltzek eta kanpesinoek gaztelaraz egiten zuten. Gaztelara nahikoa aldrebestua, dena esan behar bada, baina tira geurea ere ez da apartekoa beraz....

B Nor zinen zu beraientzat? Atzerritik etortzen den neska gazte bat?

Hasieran misiolari bat gehiago bezala ikusten ninduten, nahiz eta habitorik ez nuen. Ikusten zuten monjekin bizi nintzela eta pentsatzen zuten bat gehiago nintzela. Gainera ni hain haundia eta hain txuria ikusten ninduten, bitxo raro bat bezala ikusten nindutela uste dudala.

B Hala ere METETITIK kanpora ere joan zara Giretan zer ziren Girak?

Ba urruti dauden herrixketara egiten genituen bidaiak, eta urruti esaten dudanean esan nahi dut ba 6 bat ordu oinez joan, eta gero piragua hartu eta beste herrixka batera joan, errepidea ibiltzeko modukoa bazegoen, ba 4x4-an egiten genuen... eta behin bertara



iristen ginenean bertan egiten genituen egun batzuk herritarrekin hitz egin eta gauza ezberdinak irakasten.

Beraiek ez badute lanik egin nahi, ez badute egiten ari diren horretan sinesten, nekez egingo dute ezer

B Baina han eta hemen hainbat gauza erakusten ibiltzeaz gain enpresa berri bat eraiki behar zen.... hori izango zen behar bada lanik zailena.

Bai dudarik gabe. Proiektu guztiko materiala hemendik bidali zuten edukiontzi batean eta izugarri kosta zitzaidan hiriburutik METETIRA ontzi

hori ekartzea, adibidez. Hortik aurrera konstrukzio lanetan hasi behar zen eta nik ez dakit ezer horretaz, baina han bazen horretaz nik baino gehiago zekien jendea eta haiek egin zuten lana. Gainera han etxe bat eraikitzea ez da hemen bezala. Hemen porlana egurra eta gainerakoak erosi egiten dituzu eta kitto. Han aurren-aurrena mendira joan, zuhaitzak moztu, eta egurra atera... Gero ez genuen ez arkitekto ez ingeniarririk ezta antzekorik ere eta nola hala moldatu ginen zerbaiz zekiten bertako mutil gazte batzuekin.

B Zer izan da zailena?

Ba proiektua aurrera eraman nahi zuen jendea aurkitzea. Zeren han ez dute lana hemen bezala ikusten. Gaur bai-bai

Galdona

 burdindegia
 Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 -143346
 Juan Belmonte, 15 Faxa. 861330

Merteze
 Erribera kalea, 6 Tel./Faxa: 861707

GANBARA

 TABERNA
 Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57



esaten dute baina bihar igual ezetz; beraz, benetan lan egin nahi zuen taldea osatzea izan zen nahiko zaila. Proiektua beraiek egin dute eta ez guk, zeren proiektutan materiala bidaltzen da, baina ez eskulana, eta beraiek ez badute lanik egin nahi ez badute egiten ari diren horretan sinesten nekez egingo dute ezer.

3 Uniformeak eta arropa egiteko bi etxe eraiki dituzue eta baita emakumeek beren bilerak egiteko 3 rantxito. Josten ere emakumeak bakarrik al daude?

Hiru bat gizonetzko ari izan dira ikasten baina orain 2 bakarrik ari dira lanean. Bi gizon eta bederatzi emakume ari dira orain uniformeak eta kaleko arropa egiten.

3 Zu arropa josten irakastera joan zinen METETIRA baina iritsi eta berehala zeuk hemendik eramandako ia guztiak erre egin zenituen.

Han jendea gu baino askoz umilagoa da, ez dauzka guk dauzkagun hainbat txora-

keria, eta beno iritsi eta berehalaxe nik igande batean jantzi nuen nahiko dotorea zen txaketa bat, eta kalera atera nintzenez jendeak nola begiratzen zidan ikusi nuenean pentsatu nuen, hau ez da bide zuzena, horrela ikusten banaute pentsatuko dute beraiek baino gehiago naizela eta ez naiz beraiengana iritsiko. Beraz hemendik eramandako arropa eleganteenak hartu eta erre egin nituen, eta egia esan erabaki horrek asko lagundu zidan gerora.

Gurasoek ahal duten guztia ematen digute, ahal bezain ongi egon gaituzten, eta ez dute ulertzen nola hemen dugun guztia utzita alde egin dezakegun.

3 Handik hona gauza asko ekarri hal duzu?

Ba ez. Azkenengo egunetan opariak ekarri nahi dituzu honentzako eta bestearentzako, baina gero pentsatu nuen zertarako gastatu diru hori gero igual apreziatuko ez den zerbaitetan?

Eta hala benetan estimatu zuen norbait eman nion oparitako dirua. Ospitalera joan behar zuen emakume bati eman nion.

3 Zu etxera etorri zara, eta orain zer, gustora geratu al dira beraiek?

Ba ez dakit zer esan. Nik uste dut orain beldur pixkat bat dutela, Zeren beldurra? Ba hemen edukiko genuen bera: ezer ez baduzu eta derrepentean tailerra ematen badidate, eta lan bat aurrera atera behar badut, eta lan hori saldu eta osagaiak erosi... ba salto haundia da. Ni saiatu naiz hori guztia nahiko lotua eta nahikoa ikasia gera dadin, baina eguneroko arazoei aurre egin behar zaie eta orain bakarrik egin beharko diete guztiei aurre. Nik ez diet arraina eman, nik kanabera eman diet, eta hortik aurrera beraiek egin beharko dute arrantzan

3 Hiru urte eta gero nolako izan zen azkeneko eguna, aio esateko eguna?

Niretzako 3 urte hauetako gogorra bi irteerak izan dira. Hemengoa eta hangoa, hemengoa lehen esan dudana-gatik; eta hangoa ba bertokoak dena ematen dizutelako eta nahitanahiez bertokoa sentitzen zarelako. Hiru urte eta gero, handik atera, hona etorri eta zeure burua ikusi ia 30 urterekin eta lanik gabe... oso gogorra da. Nik esaten nien: "El mismo miedo que tienen ustedes lo tengo yo porque cuando vuelva allí no tengo nada".

3 Inoiz izan al duzu hartutako erabakiaren damurik??

Ez sekula ez.

◀ ESTHER AIZPURUA

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

- denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua



Amaiako plaza z/g

Tel. 860959

Intsumisioa Zumaian: historia pertsonal gazi gozoa

Otsailaren 10ean nire abokatuak izan zenaren gutuna jaso nuen etxean, gutunak hala zioen: "Tras el cambio de legislación la pena privativa de libertad que te impusieron queda suprimida". Hau da, orain dela 5 urte jarri zidaten urtebeteko kartzelara sartzeko zigorra kendu didatela, lege berri baten aitzakiarekin.

Gutuna jaso ondoren konturatu nintzen zenbat urte pasa diren nire burua intsumiso moduan azaldu nuenetik, eta benetan harrিতa gelditu nintzen denbora zein azkar pasatzen den ikusita. Gure intsumiso kontuak kontatzeak zahartu egiten gaituztenaren susmoa ere sartzen hasi zait, batzutan badirudi aittattaren gerrako istorioak direla (hemendik aurrera grisen aurrean korrika aritzen zirela edo 68an Parisen zebiltzala kontatzen hasten direnei bezala begiratuko gaituzte).

Zumaian ez da mugimendu haundirik izan baina jendearen iritzia aldatzea lortu da

Gutuna jaso eta gutxira Zumaiaiko intsumisioaren historia txiki bat egiteko eskatu didate Baleikekoek, eta atzera begira jarri naizenean ia guztia ahaztuta nuela ere konturatu naiz.



Zumaiaiko Gurutze Gorrian Gu Ez Goaz taldeak egindako akanpada.

Ez dakit oso ondo zein datetan antolatu zen Zumaiaiko taldea, noiz epaitu ninduten, zein urtetan epaitu zituzten besteak, e.a. .

Zumaiaiko egoerari begiratuta, ez dut uste intsumisioarena istorio 'epikoa' izan denik, ez da inor kartzelan egon, ez da egon manifestazio erraldoirik,

edo aipatzeko beste ekitaldi berezirik. Hala ere, gaiaren aurrean jendearen iritzia aldatu dela onartu behar dut hamar urte pasa ondoren.

89. urte inguruan baziren kontzientzi antimilitarista zutenak herrian, nahiz eta sakabanatu xamar egon. Objeto batzuk amnistiatu zituzten legea

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

San Pedro kalea

English School
Harvest

Ingeles ikastaroak urte guztian zehar

San Jose, 11 bis Tel. 143334



HORBEL
PAPER-DENDA

HELBIDE BERRIA!!

Basadi, 7 behea
Tel./Faxa: 943 14 34 53



onartu ondoren eta egoera berriaren aurrean zer gertatuko zen inork ez zekien. Urte batzuk beranduago talde batean biltzea erabaki genuen gure ideiak jendeari hobeto azaltzeko eta indar pixka haiek hobeto bideratzeko. Horrela sortu zen Gu Ez Goaz talde antimilitarista.

Taldearen ia lan guztia intsumisioaren inguruan egin arren (epaiketak, informazioa, autobusak...), antimilitarismoa zabaltzen ere ahaleginak egin genituen, jostailu belikoen kontrako Gabonetako kanpainetan edo objezio fiskalaren inguruko informazioa ematen esaterako.

Inoiz ez zen lortu dinamika handirik izatea, taldearen inguruan ibili ginenok ezin izan genuen lan gehiegirik egin jendea geureganatzeko edo militarismoaren kontrako iritziak

sustatzeko. Taldeak ondo funtzionatu zuen soldadutzaren aurka, baina ez antimilitarismoaren beste alorretan. Taldeko kideen errua dela pentsatu behar dut. Hasieran beste gazte talde batzuen hutsunea somatu zen, batez

ere aurrerakoiak eta ezkertiarak izan behar zutenen aldetik, bakezaletasuna ez zelako oso ondo ulertzen. Gero epaiketek lan asko

eman zuten eta alde burokratikoak jendearen konpromiso handia eskatzen zuen: udaleko mozioak, babes eskaerak elkarteei, e.a.

Baina jendeak oso ondo erantzun du, esan daiteke Zumaiako herriak babes sozial izugarria eman diola intsumisioari, epaiketetan hori garbi geratu da. Udalak ere babes ofiziala eman zion bere garaian, baina

ez da behin ere hortik pasa, 'apoiio morala' gehiegitan aipatu da, baina ekintzetara pasa behar denean ez da gehiegi 'busti' (adibidez EUDIMAN sartzeko edo kajako gazteen zerrendak ez emateko eskaeraren aurrean). Gizarte justuagoa lor zedin legea urratzearena pertsona bakar batzuen gain utzi dute.

Batzuetan Udalak jarrera gogorragoak hartu ditu taldeek hala eskatuta, San Juan Egoitzako Gurutze Gorrirako objetoreen kasuan adibidez. Hori lorpen moduan ikusi behar dugu. Baina lorpen haundiena herriko jendearen artean intsumisioaren

aldeko iritzi sozial bateratu xamarra egotea izan da, gizarteak mezu hau bere egin ondoren lortu baita orain dela

10 urte ezinezkoa iruditzen zitzaiguna, derrigorrezko soldadutza desagertzea. Guzti hau hainbat eta hainbat intsumisoren lanari esker

Udalak 'apoiio morala' eskeini digu, baina ekintzetara pasatzerakoan ez da batere 'busti'.

Ea hurrengo urteetan ejerzitua intsumisioa bezain zaharkitua gelditzen den.





eman da, eta gure herrian zehazki Juan Luis Blanco, Haritz Romanelli, Roberto Gutierrez, Antxoka Etxabe, Iñaki Etxaniz, Gaizka Gastiain, Josu Vicente, Aitor Bayo, Gonzalo Torre, Igor Etxabe, neska intsumitu batzuk (egon dira bai, bere burua autoinkulpatuz intsumiso egin ziren neskak ere) eta beste mila objetoreri esker.

Lortu ez duguna antimilitarismoaren mezua zabaltzea izan da. Soldadutzaren desagerpena lehendabiziko urratsa da, gehiago emateko prest ote gauden zalantzan nago. Lanerako asko dugu azken helburura iritsi arte:

objezio fiskala, arma enpresen birziklapena, ejerzitoa bera desagertzea.

Baina ez gara ezkorrak izango, zerbait lortu dugu, eta ospatu beharko genuke. Norbaitek 1994ko nire epailetan esan bazidan 5 urte beranduago PPko gobernuak indultua emango zidala, oso baikorra zela edo burutik jota zegoela pentsatu izango nuke. 90ean egin nintzen intsumiso, 99an bukatu dira nire arazoak justiziarekin, ea hurrengo 9 urteetan ejerzitoa intsumisioa bezain zaharkitua gelditzen den.

Hamaika pauso

1989ko otsailaren 20a: Lehen intsumisioen aurkezpena

Kontzientzia Eragozpenaren Legea onartu ondoren, lehen aldiz, legeari intsumisio zirela aurkeztu ziren objektoreak gobernu militarrean. Intsumisioa jaio zen.

1990: Lehen gerra kontseiluak

Intsumisoak gerra kontseiluan hasi ziren epaitzen. Joseba Lazkano izan zen epaituriko lehen euskal intsumisioa.

1991: Golkoko gerra

Soldadutza 12tik 9 hilabetera murriztu arren, intsumisioak izugarritzko hazkundera izan zuen.

1992: Intsumisoak arlo zibilera

Zerbitzu Militarren Lege berria onartuta, intsumisoak epaitegi arruntetan hasi ziren epaitzen. Manu Yera eta Iñaki Camacho izan ziren lehenak. Ordezko Zerbitzu Soziala 18tik 13 hilabetera murriztu zen.

1993: Plantoa

Hirugarren graduak arazoa konpontzen ez zuela-eta plantoa egitea erabaki zuten intsumisioek. Euren atxilotzea behartu eta kartzelarako bidea hartu zuten askok.

1994: Kartzelaratzeak

Iruñean ehundik gora intsumiso egon ziren bigarren graduan. Haietatik zortzi Espainiako kartzelatan sakabanatu zituzten.

1995: Zigor kode berria eta heriotza zibila Espainiako Kongresuak zigor kode berria onartu zuen, intsumisioentzat kartzela zigorra kendu eta haren ordez heriotza zibila agintzen duena.

1996: EUDIMAREN sorrera

Udal intsumisoak mankomunitatean biltzea erabaki eta EUDIMA sortu zen. Urte horretan bertan, derrigorrezko soldadutzaren desagerpena hitzartu zen.

1996: Alkateak epaitegietan

Soldadutzako adinean ziren gazteak erreklutatzeari uko egin zioten alkateak epaitzen hasi ziren. EUDIMAKO kide izateagatik ere auzipetu zituzten.

1997: Intsumisioa kuarteletan

Antimilitarismoa aldarrikatzeko estrategia berria jarri zuten indarrean intsumisioek soldadutzan hasi ondoren desertatzea erabaki zuten.

1998: Berriz ere, gerra kontseiluak

Intsumiso-desertoreen aurkako gerra kontseiluak egiten hasi ziren iaz. Tasio Ardanaz iruindarra izan zen epaile militarrek epaitu zuten lehena.

KAFETEGIA
GAROA
JATETXEA
TXOMIN AGIRRE KAIA
TEL. 943 86 21 81

GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitzan, pabilioi eta herriko argietan

Izaga, 1 behea Tel./Faxa: 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908 -143409

HERRIKO ZUBIA...



?



HI, GAZTE...





... EZ HAIZ BA HEURE BURUAZ BESTE EGITEKOTAN IBILIKO, GETA?

NERE SEME LERDO HAREK ERE IZAN ZIAN HOLAKO BURUTAEIURIK. ESATEN DIAT NIK, GAUR EGUNGO...



..GAZTEOK NEGARRA BESTERIK EZ DUZUELA. BENETAKO KALAMIDADE LATEAK EZAGUTU EZ DITUZELAKO DUK HORI!!

NI, ADIBIDEZ, GERLAN ZAURITU NINDUTEAN, GERO...





Andoni Laskibar (Leize)

Nik uste beste herri batzuekin konparatuz, Zumaiaiko gazteekin nahiko zorte daukagula. Bakar batzuk kenduta, jendea jator portatzen da, eta alde horretatik ez daukagu arazorik.

InKesta:



Joseba Urbieta (Trapaia)

Bai hala da. Gu satanas gara, gure adar eta guzti! Taberna gazteen bilgunea da, gure kontuez jarduteko tokia. Gainera, alkohola ugari kontsumitzen den arren, gaztea ez da gehiegi desfasatzen. Taberna asteguneko buruhausteez ahazteko gunea da.

Zumaian barra ilegala omen da

Batez ere jende nagusiaren artean zabaldua dagoen tabernei buruzko iritzi ezkorren aurrean, tabernarien ikuspuntua jakin nahi izan dugu.



Josune eta Miguel (Ihintza)

Tabernen aitzakian gazteei zuzendutako kritikekin ez nator bat. Nik esango nuke barra aurrean gazteak zaharrak baino hobeto portatzen direla, legalagoak dira. Bestalde, normala da gazteek tabernarako joera izatea, Euskal Herrian oso barnaturiko ohitura baita, gure kulturaren zati bat azken finean.



Pello Etxabe

Ni ere gazte izana naiz, eta orduan ere taberna beste irtenbiderik ez genuen. Eta noski, orduan ere edaten zen, gaur baino gehiago esango nuke gainera. Ez dakit zertara datorren orain gazteenganako eraso hau. Gaurko gazteak gehiago kontrolatzen dira, eta horren erakusle da saltzen den ur botila piloa. Lehen ura makarrak kentzeko besterik ez zen erabiltzen.

ILEAPAINDEGIA
TRUITZ

San Telmo, 12
Tel. 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 143058

ITSY-BITSY
SCHOOL OF ENGLISH

Ingelesko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak
Basadi, 2 Tel. 862373

Metalezko, plastikozko eta brik ontzien birziklaketa

Laster gure kaleetan edukiontzi berri bat izango dugu. Edukiontzi honetan plastiko, metal eta brik ontziak jasoko dira. Gipuzkoa mailan hasiko dira ontzi mota hauek jasotzen eta ondoren birziklaketa zentruetara eramaten, orain arte zaborretara bota ditugun material horiek berrerabili ahal izateko.

Birziklatuko ditugun material hauek balio bat dute edukiontzietan. Zabor poltsan berriz, kutsadura bihurtzen dira.

Plastikozko ontziak

•Bota behar ditugunak:

Garbikari ontziak, olio ontziak, ur botilak, gosaritarako kakao ontziak, eta abar luze bat.


•Bota behar ez ditugunak:

Yogurth ontziak, plastikozko poltsak, plastikozko guanteak, plastikozko jostailuak.

•Zer egiten da jasotako plastikoarekin:

Edukiontzi hauetan jasotako plastikozko ontziak sailkatu egiten dira, plastiko motaren arabera. Plastiko motatan sailkatutakoan, garbitu, eta plastikoa funditu egiten da berriro

plastiko ale berriak egiteko. Plastiko ale hauek izango dira ontzi berriak egiteko erabiliko direnak.



Lortzen den plastiko ontzi berri hori ezin izango da elikagaietzako erabili eta markatu egiten da, dagoeneko berrera-biltzen ari dela jakiteko. Prozesua askotan errepikatzen denean plastikoa ezaugarriak galtzen doalako, eta hau arriskutsua izan daiteke kalitatea desagertzeagatik. Gipuzkoan, Legazpian eta Donostian daude birziklategiak.

Metalezko ontziak

•Bota behar ditugunak:

Tomate, esparrago, kontserba poteak, orokorrean metalezko pote guztiak.

•Ezin dira bota:

Zartaiak, sukaldeko ontziak...

•Zer egiten da jasotako metalarekin:

Jasotako metala beste plastiko eta tetra briketatik bereizteko iman baten laguntzaz bereizten dituzte eta ur beroaz garbitu ondoren fundizioetara saltzen da, berriro metala lortu ahal izateko.

Brik ontziak

•Bota behar ditugunak:

Esne, zumo, ardo, tomateen brik ontziak.

•Zer egiten da jasotako brikekin:

Jasotzen diren brikak Valentziara eramaten dira brikak birziklatzeko enpresa batera. Brik hauek hiru geruza ezberdinez osatuak daude: plastikozkoa bat, paperezkoa beste bat eta aluminiozkoa azkena. Hiru kapa ezberdinez osatuak egotean gure zabortegietan denbora asko egiten dute desegin ezinik. Desegiteko zailtasun hau da birziklatu beharra eragiten diguna.

◀ ARAZI



Joseba Ossa

ITZULPENAK

euskara . gaztelera . katalana
ingeleza . frantsesa

Tel./Faxa: 148306
E-mail: bakun@encomix.es



HARATEGIA URDAITEGIA

Basadi auzategia, 4-A Tel. 862081



Urumea, 6 Tel. 862083



Loredenda
JEMAR

LANDAREAK . LOREAK
HAZIAK . ZERAMIKAK

Erribera, 1 Tel. 860375



taberna
JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

BALEIKE

1999ko martxoa. 55. zenb.



Mariano hasiera hasieratik gogotsu atera zen

Nola ez, lagunarteko giroan parte hartu zutenak ere ez ziren falta izan



Denak behera begira, gelditzen zitzauena ikusi nahi ez edo....



Ze Ana? zure ikasleak sasoi betean jartzeko asmoz, ala?



**J
A
T
E
T
X
E
A**

- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

kalari Erribera kalea, 16
Tel. 862517



KABI
TBERNA - ZUMAI
Tel. 143379



Kresala
— edergintza —

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35



Ze Kiki, parregurea ematen ahal dizu saltaka egiteak?

Behingoz bada ere, paperak aldatu eta argazki-lariak argazkilariari argazki dotore hau atera zion hori da hori korrikalari planta, Aitor.



Hori da hori lasaitasuna hartu zutena batzuk helmugara iristean



..... eta bester batzuk "goikoari" eskerrak emanaz bukatu zuten lasterketa

KUKUTZ
serigrafia
paperezko poltsak dauzkagu dendarientzat
zure diseinuarekin koloretan
Baltasar Etxabe, 7 Tel. 943 86 05 69

AIZPURUA
LIBRERIA
RUDENDA
opariak
Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 861569

JOXE MANUEL
Kupoi batzuk erosi eta ...
ZORTE ON !!
Tel. 862347 - 861001

Mariano-Sanchez eta Rosa Prol Zumaiar onenak Herri Krosean

Gizonezkoetan Asier Cuevas eta emakumezkoetan Amaia Insausti izan ziren garaileak

Martxoaren 7an jokatu zen Zumaiako Herri Krosa eta urte honetan ere, iaz bezalaxe, eguraldi txarra izan zuten lagun partehartzaille guztiek. Arrazoi honengatik, partaideen kopurua ere uste baino kaxkarragoa gertatu da; irteera puntuan 325 korrikalari bildu ziren. Ikusgarria suertatu dira aurten helmuga inguruan ikusi izan diren publizitateko puzgailu erraldoiak.



Lasterketak ohi bezala goizeko 9.30etan hasi ziren, baina proba nagusiari ordubete beranduago, 10.30etan ekin zitzaion. Edizio honetan gainera ez da izan Kamel Ziani 96 eta 98. urteetako garailea, eta orain hiru urte jarritako errekorra ez du oraindik inork apurtzerik izan. Aurtengo irabazlea, Asier Cuevas eibartarra ere urrun samar geratu da Zianik 96an markatutako denboratik (30'29").

Irabazlearen hitzetan, "errekor hori apurtzea oso zaila da; gainera kontutan hartu behar da orduko eta oraingo ibilbideak ezberdinak direla eta honek ere agian eragina izan dezake". Bigarren aldia izan da eibartarrak Zumaiako krosean parte hartzen duena, "iaz lehengo aldiz izan nintzen hemen, baina ez nuen korritu garaipena eskuratzeko asmoarekin baizik eta nire prestaketa hobetzeko nahiarekin. Aurten ordea, irabaztera etorri naiz eta azkenean helburu hori lortzea posible izan dut".

Gizonezkoen sailkapen nagusian hauek izan dira lehenengo hiru postuak: 1) Asier Cuevas, 2) Manuel Hurtado eta 3) David Alonso. Zumaiarren artean berriz, berriro ere Mariano Sanchez de la Flor atleta beteteranoa izan da hoberena. 38 urteko gizon honek urte pilo darama atletismo munduan eta beti lasterketa gehienetan aurreko postuetan ibili izan da. Datorren urtean ordea, senior maila utzi eta beteteranoetan arituko da Mariano. Bigarren zumaiarra lasterketan Jon Ulazia gaztea sailkatu zen eta hirugarrena berriz, Moussin Akrikez; azken bi hauek dirudite datorren urteetan Marianoren lekukoa hartuko dutenak.

Beteranoen artean, sailkapen nagusiko lehenengo postua Donostiako Florian Garciantzat izan zen eta zumaiarren artean berriz, aurrengo postu hori Julian Igualek eskuratu zuen. Bere atzetik Vicente Villar eta Abundio Garcia sartu ziren. Amaia Insausti emakumezkoetan

Tel. 143278
KÉRASTASE PARIS
Maite
ileapaindegia

Loitz
* Eskola eta bulegorako materiala
* Enkoadernazioak
* Fax publikoa
* Aldizkari eta opariak
Erribera, 4 Tel./Faxa: 143422

malaur

Emakumezkoei dagokienez, dakizuen bezala, aurten bi lasterketa ezberdin korritu dira. Batetik, beti bezala 5,8 kilometrokoa eta bestalde, aurten lehen aldiz, gizonekoak bezala, 10,2 kilometrokoa. Azken honetan garaipena, Amaia Insausti Olaberriako korrikalariarentzat izan zen Usoa Sorazu getariarraren aurretik, era honetan 98ko emaitza berdina errepikatuz. Zumaiarren artean, sailkapena honela geratu zen: lehena, Rosa Prol, bigarren Elisa Agirrezabal eta hirugarren postua Pilar Manterolak lortu zuen.

5,8 kilometrotako proban berriz, Nerea Mujika zarautzerra gertatu zen garaile eta Arantxa Aldalur azpeitiarra bigarren. Herritarren artean aldiz, garaipena Belen Vicenterentzat izan zen, Karmele Sasiain eta Mila Larrañagaren aurretik.

Sailkapenak

Gizonekoak

1-Asier Cuevas	32.15
2-Manuel Hurtado	32.26
3-Davis Alonso	32.26
4-Iñigo Garcia	32.30
5-Iñaki Bodegas	33.13
6-Xabin Aranaga	33.26
7-Iñaki Marsal	33.50
8-Mariano Sanchez de la Flor	33.51
9-Jose Antonio Blanco	33.59
10-Patxi Mendizabal	33.51

Zumaiarrak

8-Mariano Sanchez de la Flor	33.51
37-Jon Ulazia	37.05
47-Mousin Akrikez	38.00
67-Martxelo Santamaria	39.04
72-Xabier Irureta	39.17
73-Iñigo Etxaniz	39.21
75-Felipe Agirre	39.22

78-Jon Sasiain	39.29
79-Julian Igual	39.40
82-Ramon Otaño	39.48
83-Roberto Martin	39.54
84-Jose Mari Lopetegi	39.55
95-Juan Ignacio Alkorta	40.57
106-Vicente Villar	41.21
107-Mikel Yeregi	41.23
110-Joseba Romatet	41.25
111-Juan Mari Azpillaga	41.26
121-Aitor Bayo	42.07
130-Feliciano Galiano	42.47
137-Haize Galarraga	43.24
140-Manu Olaizola	43.31
144-Gorka Zendoia	43.34
150-Benito Jose Duran	43.49
167-Abundio Garcia	44.54
168-Miguel Kerejeta	45.07
174-Iñaki Aizpurua	45.26
175-Rafael Martija	45.27
176-Gotzon Enbil	45.33
184-Fernando Gajate	46.07
186-Jose Miguel Antia	46.18
191-Iñigo Aldai	46.24
197-Jose Mari Agirrezabalaga	46.47
203-Jesus Mari Arrona	47.11
210-Jose Miguel Aramendi	47.41
211-Teodoro Jimenez	47.46
216-Eneka Aizpurua	47.57
223-Feliciano Aranbarri	49.03
234-Egoitz Maia	51.15
235-Xabier Irigoien	51.19
236-Jon Igoa	51.22
239-Lazaro Egaña	51.23
240-Ibon Azkue	51.40
241-Bernard Caporossi	51.50
247-Salvador Agirrezabalaga	52.32
248-Jon Alvarez	52.36
249-Joakin Gorostola	52.37
251-Vicente Garcia	53.02
258-Alberto Garcia	58.27
259-Arkaitz Manterola	59.10

Emakumezkoak (10,2 km.)

1-Amaia Insausti	38.28
2-Usoa Sorazu	38.52
3-Carmen Perea	39.35
4-Maria Jesus Silvano	41.00
5-Begoña Salabaerria	46.27
6-Marina Etxebarrieta	47.45
7-Rosa Maria Herrero	49.52
8-Alazne Esnaola	50.02
9-Ana M ^a Merino	50.59
10-Rosa Prol	51.20

Zumaiarrak

10-Rosa Prol	51.20
11-Elisa Agirrezabal	51.20
16-Maria Pilar Manterola	55.31
17-Maura Diez	55.32

Emakumezkoak (5,8 km.)

1-Nerea Mujika	24.05
2-Arantxa Aldalur	25.10
3-Josune Zabala	20.01
4-Arantxa Zigaran	28.02
5-Juani Etxarri	28.03

Zumaiarrak

6-Belen Vicente	28.05
7-Karmele Sasiain	29.03
8-Mila Larrañaga	29.04
10-Estibalitz Garcia	29.13
11-Ana Egaña	29.21
12-Ana Delia Mendizabal	29.23
15-Ane Galarraga	29.41
18-Margari Murillo	32.39
19-Johanna Garcia	32.46
20-Esther Aizpurua	33.24
21-Maite Egaña	35.04
22-Urrategi Egaña	35.04
23-Marijo Aispurua	36.42
24-Ines Aseginolaza,	36.42
25-Mila Osa	39.08
26-Goiz-Eder Osa	39.09

◀ IGOR URANGA

Plaieroetako bigarren fasea bukatzean dago

Jardunaldi bakarra geratzen da plaieroetako lehenengo fasea amaitzeko eta partidu horietan erabakiko dira bai Kopan eta bai Ligan ze taldek lortzen duten final erdierako txartelak. Hilaren 21ean jokatuko da azken jardunaldia eta bertan Ligako sei taldeek izango dituzte partiduak.

Hiru Ezkur-ek Ederki Herri Biltokia taldearen aurka jokatuko du, Basterrikalde Ekin Elektrizitatea Buitrakerren aurka eta Trapaia Tabernak Txikixa Pub-i egingo dio aurre. Finalerdiak apirilaren 1ean ostegun santu egunean jokatuko dira eta Liga zein Kopako finalak berriz, apirilaren 17an, San Telmoetako jaietan hain zuzen ere.

Dagoeneko Ligako txapelketan, hiru taldek lortu dute finalerdietarako txartela; Hiru Ezkurrek (iazko txapel-dunak), Arroako Ederki Biltokiak eta Trapaia Tabernak. Geratzen den laugarren postu hori berriz, Basterrikalde eta Ekin Elektrizitatea Buitrakerren artean irtingo da. Kopan berriz, final erdiak erabakita daude. Alde batetik, Kabi Tabernak Ipurbeltz Gaztañagaren aurka jokatuko du eta bestetik, Axier Kirolakek Xolskaerren aurka.

Zarautzen berriz, Zalla Erretegia taldeak agur esan dio bertako plaiero-



etako txapelketari. Zumaiarrek Eguzkitza Tximerruak talde azpeitiarraren aurka jokatutako azken norgehiagokan 2-0 galdu zuten eta honenbestez, ez dute inolako aukerarik finalerdietan egoteko, nahiz eta oraindik bigarren fasea amaitzeko partidu bat falta zaien. Beraz, bigarren urtez jarraian final erdierdian kanpo geratu da Zalla Erretegia.

Hogeita lau bikote garaiaren bila

Hasi da dagoeneko San Pedro Saria pala txapelketa herrikoia.

Hamasei bikote gizonetzkoetan eta beste zortzi emakumezkoetan arituko dira aurrean San Pedro Saria Zumaiako Pala Txapelketan. Aurtengoan gainera, antolaketa aldetik, aldaketa izan da, hemendik aurrera Lubaki Polikiroldegiak hartuko baitu txapelketa aurrera eramateko ardura.

Gizonetzkoetan, ez da nobedade handiegirik partaidetza aldetik eta iaz aurkeztu ziren bikoteetako askok berriro parte hartuko dute aurrean ere. Iazko txapel-dunak, Joseba Arratibel

eta Xabier Irureta dira berriro txapela janzteko hautagai nagusienak. Hauen atzetik, faboritoen zerrenda asko luzatzen da: azken bi urteko finalistak izan diren Ostolaza anaiak, Imanol Arratibel-Etxabe bikotea, Gorostola-Aizpuru eta beste batzuk ere hor izango dira 98ko finalistei gauzak zail jartzeko asmoz.

Emakumeei dagokienez, zortzi bikote arituko dira eta beti bezala, guztien gainera bi azaltzen dira faborito bezala: Aizarnazabalgo Gabarain ahizpak eta Ana Egaña eta Marijo Aizpuruak osatutako bikote zumaiarra. Iaz, kanpotarrak nagusitu ziren.

Emakumezkoetan, bikote guztiak elkarren aurka arituko dira eta lehenengo laurak finalerdietarako txartela lortuko dute. Gizonetzkoetan berriz, hamasei bikoteak hiru taldetan banatu dira. Talde bakoitzeko lehenengo biek San Pedro saria jokatuko dute eta gainontzekoek San Pedrinen aritu beharko dute.

◀ IGOR URANGA



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 861412

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi, 3-A
Tel. 861670

BELARDENDA
SIWA
Izaga Garcia
DIETISTA
Esther Blanco
OSTEOPATA - MASAJISTA

Basadi, 5-C beheka Tel. 143404 - 860012

Pulpoko gizonezkoen talde nagusia igoerako fasea jokatzeko zorian dago

Ustekabekorik ezean
lehenengo postuan
amaituko du liga



Senior mailako Pulpo K.E. eskubaloi taldea denboraldi bikaina ari da burutzen eta gauzak normal xamar joanez gero, liga lehenengo postuan amaitzeko aukera handiak ditu. Jardunaldi gutxi geratzen dira horretarako eta lehenengo bi postuen artean sailkatzen bada igoerako fasea jokatzeko aukera izango du.

Denboraldi honetan hain ondo ibiltzearen gakoak zeintzuk diren jakiteko, Juan Manuel Chinchilla taldeko entrenatzailearengana jo dugu. Bere hitzetan, "aurten jokalariek konfiantza gehiago dute beren buruengan, gogo gehiago eta baita esperientzia ere". Aurreko denboraldian taldeak neurketa asko galtzen zituen konfiantza ezagatik, baina orain hori erreperatu egin dute eta "hau asko igartzen da markagailuan atzetik goazenean. Nahiz eta galtzen joan, dugun konfiantzagatik badakigu partiduari buelta emango diogula".

Dena den, aipatu beharra dago Pulpo taldeko jokalariek ez dutela entrenatzen behar duten adina. Jokalari

asko lanean daude eta laneko txanda aldaketak direla eta, behar bezala entrenatzea oso zaila egiten zaie. Entrenatzaileak dioenez, "aurten ligan taldeen maila pixkat jaitsi egin da. Lehenengo hiruzpalau taldeak kenduta, beste guztiek ez dute maila handiegirik. Dena den argi geratu da edonork susto bat edo beste eman diezaiokela edonori".

Bestalde, aurreko urteekin alderatuta, ate azpian ere asko hobetu da. "atezainak askoz hobeto dabilta baina hau horrela izan arren, beste taldeetakoekin konparatuta hobetzeko asko daukagu atal honetan".

Entrenatzailearen esanetan, taldeak erraztasun handiagoa du erasorako defentsa lanerako baino. Jaurtitzaila bikainak ditu Axier, Sesma eta batik bat Jokin Esnalen bitartez eta pibotea ere ligako onentsuenetako da, Iñaki Sorazu. Dena den, jokalari ezkertiar baten hutsunea duela azaldu du Chinchillak, ezker hegaletik aritzeko.

Nolanahi ere argi utzi du "kalitate indibidual aldetik ligako talde onenetakoa osatzen dugu, onena ez bada".

Jardunaldi gutxi geratzen dira liga amaitzeko. Azkenean igoera fase hori jokatzeko badute, bi oztopo nagusirekin topatuko dira zumaiarrak: batetik, aurrez aurre izango dituzten taldeak eta bestetik, igotzea lortzen badute, maila berri horretan egoteko dirulaguntza sendo bat aurkitzea. Izan ere Lehenengo Nazional B mailan arituz gero, bidaia luzeagoak egin beharko lituzkete Euskal Herritik kanpo eta Kanariar irletara ere bai seguruenik.

IGOR URANGA

Sailkapena

(21. jardunaldiaren ondoren)

	I	B	G	Pt
1-Pulpo K.E	18	2	1	38
2-Usturibil	17	0	4	34
3-Escolapios	16	2	3	34
4-El Pilar	15	2	4	32
5-Ereintza	12	3	6	27
6-Arabacan Gure	11	1	9	23
7-Gascañ 97	10	1	10	21
8-UPV/EHU	8	3	10	19
9-Aloña Mendi	7	1	13	15
10-U. Deusto	7	0	14	14
11-Barakaldo UPV	5	3	13	13
12-Egia	5	2	14	12
13-Sestao	5	2	14	12
14-Arrasate	0	0	21	0

INMOBILIARIA



BIDAIAK

Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323

Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza

Tel. 861440

ZINE FORUM



Martxoak 25, osteguna
El dulce porvenir
(The sweet hereafter)
Zuz: Atom Egoyan
Akt: Ian Holm, Bruce Greenwood

Orain 4-5 urte Egoyan-en aurreko filmea, "Exotica" liluragarria, zinezale guztien ahotan egon zen Donostiako zine areto batean hilabete bat baino gehiago iraun zuen eta Gipuzkoako zine-klub denetan eskaini zen, Zumaia-koa barne. 1997an Egoyan-ek "El dulce porvenir" filme aurkeztu zuen. Kritika bikainak jaso zituen, oskarretarako izendatu zuten, aurreko filma bezala pasa zen zinemaldi denetan saritu zuten... baina gauzak nola diren, Donostian ez zen estreinatu (beno bai, urte honen hasieran areto txikienean aste betean egon da). Hala ere martxoaren bukaeran Zumaian izango dugu Kanadako paisaia izoztuetan gertatzen den istorio gogor hau.

Egoyan-ek herri txiki batean gertatzen den tragedia bat kontatzen digu: eskolara bidean autobus batek istripu bat izaten du eta bertan doazen herriko hainbat haur hil egiten dira. Aurreko urtean eskeini zen Paul Schrader-en "Afflicción" ikaragarria bezala, "El dulce porvenir" Russell Banks-en liburu batean oinarrituta dago. Idazle honen lanetan beti ere mina barnean gordetzen dituzten pertsonaiak aurki ditzakegu. Egoyan-ek pertsonaia hauek hartu eta urteko film onenen zerrendan aurki dezakegun lan bat egin du.

Apirilak 8, osteguna
Las alas de la paloma (The wings of the dove, 1997)
Zuz: Iain Softley
Akt: Helena Bonham Carter, Linus Roache

"Las alas de la paloma" Henry James-en liburu ezezagunenetakoa da, agian bere pertsonaiak nahiko "nazkagarriak" direlako: neska amerikar aberats baten atsekabeez probetxua atera nahi duten maitale bikote "trepa" bat. Material honekin Softley-ek pelikula guztiz modernoa egin du. Ez du inporta pertsonaiak aurreko mendeko modaren arabera jantzita egoteak, Bonham Carter eta Roache-en pertsonaiak modernoak baitira. Filme honek zerikusi gutxi du James Ivory-ren epokako pelikulekin. Haiek neurtuta daude, kontrolatuta. Film hau aldiz, freskoagoa da, erritmo biziagoa du. Hitz gutxitan, hurreko mendean oinarritutako maitasun istorio bat, baina oraintxe bertan gerta litekeena.

Irakurketarako aukerak

Euskaraz

Gauza baten ametsa
Espainiako Gerra Zibila
Euskal Herrian
Ipuin Hautatuak
Arima hilak
H. dosierra

Pier Paolo Pasolini

Josu Chueka

Jorge Luis Borges

Nikolai Vasilievitx Gogol

Ismail Kadare



Gaztelerez

La casa de Dios
Las puertas del Eden
La amigdalitis de Tarzan
El Dios de las pequeñas cosas
Amor perdurable

Samuel Shem

Ethan Cohen

Alfredo Bryce Echenique

Arundhati Roy

Ian McEwan



Haurrak/Gaztetxoak

Mamuen dardarizioa
Balantx
El secreto de las gafas
Min dut mingainean
Soy un héroe

Jose Maria Mendiola

Antton Kazabon

Josep Gorritz

Margaret Mainè

Ted Von Lieshout



TALAI-MENDI
 DEKORAZIOA

- * Eskaiola
- * Pintura
- * Pladur
- * Erreformak oro har

ENKARGUAK 929-55 05 74 telefonoan

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis

Tel./Faxa: 861416

fidatzeko baimen guztiak



otsaila

IKASTAROAK

- **Etxeko landareen zaintza: barne eta balkoietakoa.**

► Informazioa Forondan.

ERAKUSKETAK

► Martxoaren 12tik 28ra Oxford aretoan.

Nicolas Alba-ren eskulturak
Ordutegia: astegunetan 6etatik 8etara; jaiegunetan 12etatik 2etara/6etatik 8etara.

► **Martxoaren 15etik 27ra Forondan.**

Javier Fernandez argazkilariaren bilduma: Pirineoak.

LEHIAKETA

► **Zumaiako I. kantu lehiaketa.**

Apirilak **17**, arratsaldeko **7etan, Aita Marin**. Zumaiako lagun taldeak, kuadrilak edo helburu honekin osatutako taldeek har dezakete parte. Parte hartzeko arauak hauek izango dira:

- **Zumaiar guztiek** har dezakete parte; halere taldekideen erdiek gutxienez 16 urtetik gorakoak behar dute izan.
- Taldekideak **gutxienez 10 eta gehienez 16** izango dira. Taldea gizonetako eta emakumezkoen beharko dute osatu.
- Talde bakoitzak **hiru abesti kantatu** beharko ditu, guztiak euskal abestiak. Abesti bat derrigorrezkoa izango da, beste biak taldeak aukeratuak.

- **Derrigorrezko abestia:** Maritxu nora zoaz (3 ahots nahasiak).
- **Ezingo da** musika tresnarik erabili.
- **Saria**, 50.000 peztakoa, bakarra izango da.
- **Izenematea:** Foronda kultur etxean martxoaren **18a baino lehen**.

ZINE FORUM

► Martxoak 25, Aita Marin, gaueko 10,15etan, **zine forum** saioa Atom Egoyan-en "El dulce porvenir"

► Apirilak **8**, Aita Marin, gaueko 10,15etan, **zine forum** saioa lain Softley-en "Las alas de la paloma"

EKITALDIAK

► Martxoak 18, Maria eta Josen, gaueko 10etan. Korrika Kulturalaren barne, **Pako Aristi eta Mikel Markez**-en kontzertua.

► Martxoak 21, Aita Marin eguerdiko 12etan, haur antzerkia; **Taupada taldearen** "Mari Sorgin".

► Martxoak 25, Forondan, arratsaldeko 7etan, hitzaldia; **Gerarto Arozena: "Euskal zibilizazioaren sustraiak"**.

► Martxoak 26, Forondan, arratsaldeko 7etan, diapositiba emanaldia; **Javier Fernandez: "Ordosako xarma"**.

► Martxoak 26, Beheko plazan, arratsaldeko 4:30etan **KORRIKA TXIKIA**

► Martxoak 28, eguerdiko ordu batean, **Bandaren kontzertua**.

Jarraitzen duten ikastaro eta zerbitzuak:

LIBURUTEGIA

Helduentzat

► Astegunetan, **9.30 - 13.30** eta **16.00 - 20.00**.

Larunbatean, **10.00 - 13.00**

Haurrentzat

► Asteleheneetik ostiralera,

16.00 - 20.00

- Liburuak, aldizkariak, egunkariak... Urtariletik aurrera OPAC sistemaren bidez kontsulta errazagoa.

- Egin zaitetz liburutegiko bazkide. Mailegu zerbitzuaz baliatzeko bazkidetza behin-betikoa izaten da. Karneta: 800 peza.

ARTXIBO HISTORIKOA

► Egunero, **10.00**etatik **13.00**era

INTERNET

Liburutegian.

► Astegunetan, **10.00 - 13.00** eta **16.30 - 19.30**

- Internet txartela: urte osorako bazkidetza: 1000 pezeta.

ARGAZKI LABORATEGIA

Txuri-beltzeko argazki laborategia.

Forondan

LUDOTEKA

Haurren txokoa.

► Asteazkenetik ostiralera, **5 - 7:30**

► larunbatetan, **3 - 6**

Tel: 943 14 32 64



ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak.
Balorazioak

TXINGURRI
Koop. Elk.
Nekazaritza Injeneru Teknikoak

TXOKO
T
B
E
R
N
A



Artadi auzoa
Tel. 862189

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 143089

Buzoi metalikoa



Zer pasatzen da, kolegak!!

17 eta 18 urtetako bi tio gara, Oscar eta Fuck-off, eta España guztiko tio/a-ekin karteatu nahiko genuke batez ere Madrid ingurukoekin eta gure adinekoak badira hobe.

Gure gustuak honakoak dira: Metallica (erregeak), Kreator, Anthrax, Sepultura, N.Assault, Slayer, Voivod, Overkill, Sodom, Tankard, Sabbath, Megadeth, Morbid Angel, Napalm Death, etab...

Ez zaitezte ebaki eta idatziguzue, gutun guziak erantzungo ditugu.

Besterik ez, zorionak aldizkariari hilabetero zoriontsu egiten gaituelako.

Oscar Borondo. Madrid.

Eh! Colega metalikoak!

18 takotako tia bat naiz eta ovario putetaraino dagoena bere kolegatza (nolabait deitzearren), denak super-egoista batzuk dira, aspergarriak, sosak, hau da hilotz batzuk. Ipurdiraino nago beren putaditetaz eta beren ume moñoña lelokerietaz. Ezin dut jasan! Eta pijillaz jantzita ez badoaz ere, hala dira barrutik, moñoñak! Eta bukatu zait pazientzia. Juergan irteteko gogoia dut, peña ezagutu eta de puta madre pasatzeko. Musika heavygaitik izango ez balitz (eta aldizkari honengaitik) ez dakit non egongo nintzatekeen orain. Valencia ingurukoa bazara eta

zure kolegek agobiatzen bazaituzte ez pentsatu eta idatzi niri, horrela peña osatu eta ahalik eta de puta madre pasatzeko. Berdin dio sexuak edo greñarik ez badaramazu (baldin badituzu hobe!!), bakarrik axola du heavya bihotz barneraino eramatea, legala izatea eta drogetatik paso egitea.

Eva Sanchez. Valencia.

Kaixo peña!

Alley izenda dut eta lehen aldia da de P.M.-ko aldizkari hontara idazten dudala. Guns'n'Roses eta Skid Row-en fanatika bat naiz eta molatuko lidake haiei buruzko edozer bidaliko bazenidate.

Baita ere edozein lekutako tio/a-rekin gutundu nahi nuke. Nere gustuak Metallica, Ozzy, W.A.S.P.-etik Angeles del Infierno edo Manzanoraino doaz. Nire kolegarik onena agurtu nahi dut, Ewa, eta San Isidroko peña guztia, bereziki José, Quique eta Raquel. Argazki bat bidaltzen dizuet argitara dezazuen.

Agur bero bat.

Alley Armell. Valencia



Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10

Tel. 861853



Amaya Hotelak zumaiar askori ematen zien lana, bai sukaldari, garbitzaile, kamarera, geletako zerbizari edo botones moduan. Argazki honetan dantzariak ere ageri dira. Turistentzako espektakuloak ere montatzen zituzten nonbait.

Amaya hoteleko langileak



TXAPARTEGI GOZOTEGIAK emandako azken tarta **Miguel Mari Zubimendi**rentzat izan da. Berak zioen bezala, Xabi eta Palo ziren bi tirolesak.

Lehiaketa goxoa

Adi, adi! ea tarta goxoa nork eramaten duen!!!



Zein da argazkiko izaki unizelular hau?

Asmatzen duzuenon artean *Txapartegi* gozotegiak emandako tarta zozketatuko dugu. Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna gure Buzoi berrian edota Txapartegin bertan uztea, martxoaren 26a baino lehen. Lehenbailehen idatzi eta zorte on!



Argazki eta bideo erreportaiak
Errebelatzeak
Kamarak
Musika

Erribera kalea z/g Tel. 861705



SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTALAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUGELAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa z/g Tel. 148082
20740 IRAETA - ZESTOA Faxa: 148124
78 postakutxa



Tel. 861322
Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g

motxian hi!



Nola: Malua

Posible al duk ezer ez izatea hainbeste lanbide izan ondoren?

Lan ezberdinetan aritu arren, inon ez diat gustora jardun: taxista, dendari, itsasoan, txurrero, tabernari, mekaniko,...

Txurro saltzen Japonian ibilia, dioten bezain itoa al da hura?

Ni Nagoyan izan nituan, lau milioi biztanleko hiria. Baina hi hire eremu-txoan bizi haiz, eta ez duk hainbesteko sentsaziorik nabaritzen.

Japoniako txurroak ala Errezilgo taloak, zer dituk gustokoago?

Errezilgo taloak.

Berriz jaioko bahintz zer izan nahiko huke?

Atezain. Damu dut berandura arte serio hartu ez izana. Partiduak ikustera joaten naukenean ere beti, ate atzean jartzen nauk.

Zein ate defendituko zenuke?

Inpernukoa.

Inpernuan ez zekiat, baina Inpernupen sarri ikusten haugu.

Bai, taberna inguruko eta gau giroaren beharra diat.

Nolatan lurreratu huen hire hegazkina Zumaian?

Superportu ederra ikusi nialako.

Zer behar duk gustora bizitzeko?

Ezin zitekek orri batean plasma.

agurrak

Zer da dizdira hori!!!

Superman??
Batman???

EZ!! Meras kotxe berrian dator.

Izpu gai al haiz fresadora eta toinoa berizten??

Mitxelo

P.306

SALGAI NAFARROAN (Lerinen)

Etxe txiki bat bi pisukoa punttu puntuan saltzeko

4 miloi pta.

Deitu tlf. honetara 943-861848

Karmen.

Agirre, zer da lur aldatze hori?

Orain badakik:

-"Dar cera pulir cera"

Doinua: "Haizeak bidali du"

Haizerak bidali du Burgostik honuntza Mitxelok ekarri du bertatikan hontza ez da mutil makala rimatzeko bultza gure ehiztari fina burgosko basantza.

Otxando.



GILANO

Paperdenda LIBURUDENDA
Aldizkariak
Fotokopiak Baltasar Etxabe, 7
Enkuadernazioak Tel. 143191

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomaturia

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

ITZURUN
KIROLAK

Amaiako plaza, 13 Tel. 860758

Urolthermik

Arotzia Metalikoa



POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko ateak eta suhesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 ZUMAIA

25 urtetik
gorako esperientzia

AUTOS ZUMAIA

AUTO-KONPONKETAK

INSTALAZIO BERRIAK
ESTAZIOKO INDUSTRIALDEAN

- Mekanika orokorra
- Direktzioaren lerrokatze elektronikoa
- ITV aurreko azterketa
- 2. eskuko autoen erakusketa



UROLA PLAZA 3-5 TEL. 943 86 14 85

KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA


ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatoz eta galdetu

GAS NATURALA
BUTANO
PROPANO



DORNUTEGI

SUKALDEKO HALTZARIAK

Basadi auzoa, 10 behea Tel. 862051



Sukalderako hornikuntza diseinuak.

Lanen zuzendaritza.

Edozein sukaldetara moldaturiko diseinu bereziak.

Kalitate-prezioan parekorik ez.